

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gaur egun euskaldunok mundu osotik zehar hedatu gara, eta Euskal Herritik gertuago sentitzeko euskal etxeak eraiki ditugu, gure kultura partekatu eta zabaltzeko ahal izateko. Baina, mundu osotik dauden euskal etxeen egoera ez denez batere ona, arazo horri konponbidea jarri behar zaiola uste dugu.

Hau gauzatzeko dugun ideia artisau-enpresa bat aurrera ateratzea da. Bertan, hiru saski mota desberdin sortu eta ekoiztuko ditugu, soilik euskal produktuak bilduko dituztenak, gure herriko dendetako produktuak zabaltzeko eta beste lurraldeetan ezagutzera emateko; ondorioz, euskal produktuen salmentak igotzea lortuko dugu. Saski horiek webgune baten bitartez Argentinako zein mundu osoko euskal etxeei, Euskal Herriko dendei, euskaldunei eta abar salduko dizkiogu. Salmenta horien irabaziekin gure enpresa aurrera ateratzeko dirua lortuko dugu eta Argentinako euskal etxeei diru laguntza bat emango diegu, bertako arazoak konpondu ahal izateko eta gure kultura partekatzen jarraitzeko.

Aipatu bezela, hiru saski mota salduko ditugu eta tamainaren arabera sailkatuak dira; hots, saski txikia, ertaina eta handia. Lehenengo saski honek, 20€ko prezioa izango du, eta bertan ezti pote bat, membrillozko beste bat eta zainzurizko beste bat aurki daiteke. Saski ertaina, aldiz, 30€koa izango da, bertan produktu gehiago eskiniko baititugu: ardo botila bat, bi gazta, membrillo pote bat, bi zainzuri pote eta beste bi ezti pote. Azkenik, handienak, 40€ kostatuko ditu, eta bere barnean hiru ezti pote, beste hiru zainzuri pote, membrillo pote bat, hiru gazta, ardo botila bat eta beste sagardo botila bat aurkitu ahal izango dute gure bezeroek.

Bestalde, gaur egun teknologia oso barneratuta dugunez (edozein motatako erosketak egiteko, bidaiak erreserbatzeko, informazioa lortzeko...) webgune bat sortzea erabaki dugu gure produktuak saltzeko. Horregatik, guk emango dugun zerbitzua *online* izango denez, 24 orduak egongo da gure denda irekita, denda birtuala izango baita. Horrela, nahi denean eta nahi den lekuan erabili ahal izango da, hau da, bezeroak ez dute inongo mugarik edukiko. Gainera, gure enpresan bitartekariak saihestuko ditugunez, gastu portzentaje oso handia aurreztuko dugu, beraz, gure bezeroei eskainitako prezioak hoberenak izatea lortuko dugu.

Proiektu hau etorkizunari begira sortu dugu, izan ere, geroz eta euskaldun gehiago daude Euskal Herritik kanpo bizi direnak. Haientzat zuzenduta dago gure enpresa, etxetik hurbilago daudela sentiarazteko, janarien bidez, izan ere, euskal kulturaren zati handi bat gure gastronomia da.

Gure bezeroarekiko harremana ordenagailuaren edo mugikorraren bidez egingo da, hots, webgune, korreo edota telefono baten bitartez; izan ere, orain, geroz eta gutxiago erabiltzen dira aurrez-aurreko harremanak, hortaz, moldatu egin gara teknologia berri honetara. Bestalde, guk anbizio handia dugunez, gure enpresan hori islatu egin nahi izan dugu, eta gure helburuetako bat gure enpresa mundu osora zabaltzea da. Baina horretara ailegatu baino lehen, munduaren zati txiki batetik hasiko gara, Argentinatik hain zuzen ere, bertan Ameriketara dauden 150 euskal etxeetatik 65 kokatzen dira eta. Nagusiki, bezero hauetara bideratuko gara, baina komunikazioa webgune baten bidez denez, edozeinek izango du eskuragarri.

Honetaz gain, gure zerbitzuan ahalik

eta paper eta plastiko gutxien kontsumitzen saiatuko gara, kontuan izanda gaur egun ikaragarri suntsitzen ari garela gure platenan.

Gu Brandy, Libe, Iratxe eta Maialen gara, eta hortik dator gure enpresaren izena, "BLIM". Urretxu Zumarragako ikasleak gara eta Startinnovak eskaintzen digun aukera aprobetxatuz, gure enpresa proiektua aurrera eramango dugu, euskara eta euskal produktuak mundu osora zabaltzeko asmoz; izan ere, ez dakigu euskarak etorkizunean izango duen egoera.

